

# Hamazazpi

2013ko udazkena



Ayuntamiento de Zigoitia  
Zigoitiko Udala

**\_ TOKIKO EMPLEGU PLANA**

**\_ WWW.ZIGOITIKOUDALA.ORG**

**\_ LIBURUTEGIKO II JARDUNALDIAK**

**\_ NARRASTI ETA ANFIBIOEN INBENTARIOA**

**\_ KOTXEA PARTEKATZEKO ZERBITZUA, MARTXAN!**

**\_ MAIRU ABESBATZA, BIZITZA KANTA-KANTARI**

**\_ OLENTZERORI LAGUNDUZ: JOSTAILUAK AUKERATZEKO GIDA PRAKTIKOA**



## Hasteko

**04 Enplegua**

80.000 € udalerrian lana sortarazteko

## Orain eta hemen

**06 Web-gune berria**

Argiago, dinamikoago eta interesgarriagoa

**08 Kotxea partekatzeko zerbitzua**

Bidaiatzeko eta aurkezkeko modurik erraz eta praktikoa

**09 Anfibio eta narrastiak**

Aranzadi Elkartea Zigoitiko herpetofauna inbentarioa egiten ari da

## Liburutegitik, maitasunez

**10 Liburutegitiko II Jardunaldiak**

Javier Arbuluren kolaborazioa

## 'Made in Zigoitia'

**12 Mairu Abesbatza**

Bizitza kanta-kantari

## Planak

**13 Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia**

Azaroaren 17an jokatu da Murgian, Palatu kiroldegian

**14 Jostailuak aukeratzeko gida praktikoa**

Adinaren araberako egokienak

## iZigoitia sasoiari!

Udalak eta Etxebarri Ibiñako Udaltzarak sinatutako akordio bati esker, Zigoitiko bizilagunek errezago daukate kirola egitea. Herriak fitness areto bat dauka, erabateko ekipamenduarekin: 4 bizikleta estatiko, 2 eliptiko, korrika egiteko zinta 1, arraun-makina 1, stepper 1 eta polea-makina 1. Aretoa Zigoitiko biztanle guztiak erabil dezakete, Etxebarri Ibiñako herritarrek gozaten dituzten baldintza berdin berdinetan. Hiruhilabeteko kuota ere bada, 30 €koa, familiako. Kuota ordainduta, aretorako sarrera libre izango da, gimnasia klaseak programatuta dauden orduetan izan ezik. Interesatuta bazaude, jar zaitez Etxebarri Ibiñako Administrazio-Batzarrarekin harremanetan. Bi aukera daukazu: 945 460 198 telefonoan mezu bat utzi, edo, bestela, bikorta12ei@gmail.com helbide elektronikora idatzi.



## 2013ko Zerga-ordaintzailearen egutegia

**JARDUERA EKONOMIKOEN .. ZERGA**

Borondatez kobratzeko epea:  
2013-11-01 \_ 2013-12-31

Helbideratutako ordainagiriak kobratzeko epea:  
Abenduaren hasieran.

**ORDAINTZEKO LEKUA ETA .. MODUA****INFORMAZIOA, ZERBITZUAK ETA KUDEAKETAK**

Udaletxea. Telefonoa:  
945 46 40 41. Astelehenetik ostiralera 9:00etatik 14:00etara.  
Faxa: 945 46 40 52, e-mail:  
[azigoitia.registrogeneral@ayto.alava.net](mailto:azigoitia.registrogeneral@ayto.alava.net)

**Finantza-erakundeetan helbideratu gabeko ordainketak:**

Ordaintzeko lekuak:  
Vital Kutxaren eta Euskadiko Kutxaren bulegoetan.  
Internet bidez, web orri honetan:  
[www.zigoitikoudala.org](http://www.zigoitikoudala.org) (Nire ordainketa).

**Finantza-erakundeetan helbideratutako ordainketak:**  
Zigoitiko Udalak zuzenean kudeatuko du ordainketa, helbideratu den finantza-erakundearen kontuan.

**AHOLKUAK .....**

Banku helbideratzeetan altarik edo aldaketarik egon bada edo interesduna etxebizitzaz aldatu bada, Zigoitiko Udalarik jakinaraziko zaio, hurrengo batean jakinarazpenak egin ahal izateko.

**BETEARAZPEN EPEA .....**

Araututako epea bukatu eta hurrengo egunean hasten da eta betearazte-errekarguak, premiamenduzkoak eta ohiko premiamenduzkoak ordaindu beharko dira Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak adierazitako epeetan.

Staff **HAMAZAZPI.** Zigoitiko Udaleko aldizkaria · 2013 ko uda

**Azalaren argazkia:** Imanol Arroyo Palacín. **Editatzailea:** Zigoitiko Udala\_ Kultura Saila · Bengolarra, 1 01138 ONDATEGI (ARABA) · T\_ 945 46 40 41 · [www.zigoitikoudala.com](http://www.zigoitikoudala.com) · [info@zigoitikoudala.com](mailto:info@zigoitikoudala.com)

**Koordinazioa eta erredakzioa:** Rosa Ortiz de Mendivil · [romendivil@hotmail.com](mailto:romendivil@hotmail.com)

**Diseinua eta maketazioa:** Hirudesign Web Estudio S.L · [www.hirudesign.com](http://www.hirudesign.com)

**Imprimaketa:** Gráficas Irudi · [www.graficasirudi.es](http://www.graficasirudi.es) · **Ale kopurua:** 1.020 ale · **Lege-gordailua:** VI-67/08 Aldizkari honetako testuak edota argazkiak kopiaatzeko, editatzaileari baimena eskatu behar da.

**HAMAZAZPI Facebooken ere irakur dezakezu:** [www.facebook.com/hamazazpialdizkaria](http://www.facebook.com/hamazazpialdizkaria)

# Enplegua sortarazteko 80.000€ inbertituko ditu Udalak



Argazkiak: **SXC**.

### Kontratazio zuzena

Zigoitira bueltatuz, udalerrri mailan martxan jarri den neurrietako bat 3 langaberen kontratazioa izan da. Hasiera batean, Udalak hiru hilabetez kontratatuko ditu, Gopegiko etxebizitza sozialetan dauden udal lonjetako bat konpontzeko eta merkataritza lokal modura egokitzeko, ondoren eska lezakeen ekintzaileren bati eskaini ahal izateko.

Bestalde, kalitatezko lana bultzatzeko xedeari lotuta, Udalak berak sinatzen dituen kontratuetan kalitatezko emplegu sustapen politika eta gizon


eta emakumeen arteko berdintasuneko politika sartzen hasi dira. Horrela egin da garbiketa kontratuarekin; lehenengo aldiz hitzarmenaz gainera baldintzak edo enpresak langileei 3/2007 ko Legearen minimoak hobetzen dituen bizitza pertsonala, familiarra eta lanekoa bateratzea ahalbidetzeko neurriak eskaintzea esleipen-irizpideak bezala kontuan hartu dira. Besteak beste, lanaldi-laburtzea, lan-utzialdiak edo amatasuneko edo aitatasuneko baimenak, edo kontziliazioaren beharren arabera ordutegi ematea.

Prestakuntza-ikastaroak, enpresa hazitegi baten sorrera, ekintzaileentzako laguntza eta aholkularitza zerbitzuak, Udalaren zuzeneko kontratazioak... Era honetako 21 ekintza orotara, langabezia dauden herritarren beharretan eta errealitatean onairritutako kalitatezko enplegua sortarazteko. Zigoitiko Tokiko Emplegu Plana da. Gobernu taldeak eginiko apustua da eta oposizioko talde guztiek adostutako eta sostengaturiko ekimena.

Plana iragan irailaren 26ko osoko bilkuran onartu zen aho batez, 80.000 €-ko diru kopuruarekin, eta martxan dago jadanik. Lan irteera bat eskaini nahi die udalerrian dauden 70 langabetu baino gehiagori. Horrek udalerrian % 6,5eko langabezi tasa suposatzen du. Konparazioan, urrun dago Arabako datuetatik (%15,81eko langabezi tasa) eta are gehiago espainiar estatuko batazbestekotik (%25'98). Baina Zigoitiko Udalarentzako langabetuak lehentasuna dira. Portzentaia hori jeitsi nahi du, ahal den neurrian nahi duen orok lan egiteko aukera izan dezan.

### Eskualdeko elkarlana

Abian jarri den lehenengo neurria, Zuiako Koadrila eta Otxandio Udalarekin batera, Lanbideko (Euskal Emplegu Zerbitzu-ko) bazkideak izateko hitzarmen baten sinadura izan da. Horrela, 1.500 euroko diru laguntza (Lanbideko emandakoak) eskaini ahal izango da Eskualdeko sustatutako emplegurako laguntza eta aholku prozesuan parte hartuko duten ekintzaileei. Era berean, Zuiako Koadrilarekin batera, hurrengo hilabeteetan hainbat kontratazio zuzen egiteko asmoa dago. Neurri hori orain mugatzen ari da eta 2014an zehar gauzatuko da.



### Emplegu Plana\_partidak:

\_ **Emplegu Planaren Ekintzak:** 5.000 €

\_ **Langile kontratazioa:**

Soldata: 42.300 €

Gizarte-segurantz: 15.400 €

Istripu eta bizitza aseguruak: 1.500 €

\_ **Udal-eraikinen birgaikuntza** (merkataritza lonjak eta enpresen hazitegia): 16.461.23 €

### 21 ekintza

Plana hasi besterik ez da egin, eta gutxi gorabehera 2015eko erdialdera arte iraun dezan pentsatua dago, legegintzaldia amaitu arte, hain zuzen. Une honetan, udal mailan zein Zuiako Koadrilarekin eskualde mailan, 21 ekintza zehazteko, koordinatzeko eta martxan jartzeko lan egiten ari da. Haien artean, enpresen udal hazitegi baten sorrera, enplegurako formakuntza (lan-eskaintzei egokitutako ikastaro espezifikoak), ekintzaileentzako laguntzak (prestakuntza ikastaroak eta laguntza eta aholkularitzako zerbitzuak), kontratazio zuzen gehiago (mendi-lanetarako, lorezaintzarako, zerbitzu orokorretarako...) eta hitzarmenen sinadura erakunde desberdinekin, Gorbeia Merkataritza Parkea kasu.

# Udal web berria: argiago, dinamikoago eta interesgarriagoa

Zigoitiko Udalak baliabide eta politika publikoen **kudeaketak gardenatasuna eskatzen duela** pentsatzen du.

Uste horrekin [www.zigoitikoudala.org](http://www.zigoitikoudala.org) udalak web-orrialde berria jarri du martxan. Informazio publikoa hiritarrena da. Eta modu errazean eta dohainik eskuratzeko moduan behar du egon. Horrela, udalerriko bizilagunek gobernuaren lana ebaluatu ahaliko dute eta baita udal bizitzan modu gogotsuagoan parte hartu ere.

Webgune berria arinagoa, argiagoa eta zuzenagoa da eta eguneroko bizitzarako edukiak gehitzen ditu: berriak, agenda, iragarki-taula, kontratatzailearen profila, kotxea partekatu ekimena, herritarren postontzia eta aldizkari elektronikoan harpidetza egiteko aukera, besteak beste. Antolaketari dagokionez, **6 atal nagusitan banatzen da:**

## 1\_UDALA

Hemen Berriak, Iragarki-taula, Udalbatza eta Gobernuaren konposizioa, Udal eraikinak, Indarreko udal-araudia, Batzarren aktak, Udal aurrekontua, Hamazazpi aldizkaria, eta Enplegu eta Oposizioak kokatzen dira. **Legezko abisua** kontsultatzeko aukera eskaintzen da, udaletxera hurbildu beharrik gabe. **Udal eraikin** guztien ordutegi eta telefonoak agertzen dira.

**Osoko Bilkuretako akten** argitalpena hobetu egin da; saio bakoitzeko gai-zerrendaren laburpen bat azaltzen da, horrela interesatzen zaizkigun aktak zuzenean kontsulta ditzakegu. Gainera, baliabide publikoekin gardetasunez jokatzeko asmoz, urtero **udal-aurrekontua** osatzen duten dokumentuak argitaratuko dira.



## 2\_UDAL ZERBITZUAK

10 arlotan zatitutako atala:

**Ekitaldi-agenda**, udal agendaren parte diren ekintza, bilera eta hitzordu guztiekin.

**Herritarrari Arreta Emateko Zerbitzua**, pausoz pauso azaldutako zerbitzuen prozedura nagusiekin nahiz udal zerbitzuekin harremanetan jartzeko bide printzipalekin.

**Kultura** eta **Kirola**, diru-laguntza deialdi guztiekin: elkartei zuzendutakoak, euskara ikasteko bekak eta herriko jaiak finantzatzeko Administrazio-Batzarretarakoak. Izan ere udaleko kultur eta kirol zerbitzu guztiak deskribatzen dira.

**Tokiko agenda 21**, irizpide jasangarri eta ingurumenezkoak udal politikan sartu nahi dituen proiektu honi buruzko informazioarekin.

**Gizarte-Ongizatea**, Eguneko Zentroan nagusiei emandako zerbitzuei zein oinarriko gizarte-zerbitzuei buruzko informazioekin.

**Ogasuna** sailean, momentuz, Zerga ordaintzailearen egutegia begira daiteke.

**Hirigintza kudeaketa**, prozedura urbanistiko nagusiekin (obra-lizentziak, urbanizazio-proiektuak...). Hemen, halaber, dirulaguntzak eta horiek eskuratzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa zehazten dira, besteak beste

nekazal-etxeak bizitoki bihurtzeko lanei dagokienez edota Udalbatzetako obra nahiz zerbitzuei dagokienez. Burutzeko behar diren inprimakiak bertan deskarga daitezke.

**Hirigintza-Arautegia**, Zigoitiko Hirigintza-planaren Arau Subsidiarioekin (testu originalak eta aldaketa puntualak). Era berean, eskuragai izango da tramitatean den Hiri-Antolamenduko etorkizuneko Plan Orokorren Aurrerapena. **Katastroa**, katastroko prozedurekin. Hortaz egiaztapen bat eskatu nahi bada, adierazitako pausoak jarraitu besterik ez dago.

**Mendiak** sailean Baso-Ustiapenetako urteroko plana, Gorbeiko Parke Naturala eta mendiko udal jardueri buruzko informazioa aurki daiteke.

**Animaliak** arloan animalia potentzialki arriskutsuen jabego-lizentzia nola tramitatu eta erregistroan nola inskribatu argitzen da.



## 3\_BESTELAKO ZERBITZUAK

Beste erakunde batzuek eskaintutako zerbitzuak: **Medikua, Eskolak, Bake epaitegia, Ur partzuergoa, Euskaltegia, Dominizubi Musika Eskola, Telefono interesgarriak, Garraioa eta Hondakinen kudeaketa.**

## 4\_TURISMOA

Atal honetako edukiak lantzen ari dira. Prest izan bezain laster jakinaraziko zaie hiritarrei.

## 5\_HERRIA

Hemen udalerrria eta hura osatzen duten herriei buruzko informazioa ematen da. Asmoa da administrazio batzarren eta udalerriko elkarteekin elkarlanean informazioa zabaltzekoa.

## 6\_HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Lanketa fasean den atala. Asmoa da udalerrian dauden Parte-Hartze Gizarte Batzordeei buruzko (Kultura Batzorde Aholkularia eta Hiri-Antolamenduko Plan Orokorreko Batzorde Aholkularia) informazioa eskaintzea. Udala elkarteekin harremanetan dago euren kontaktu datuak eta helburuak argitaratu ahal izateko. Era berean, atal honetan, hiritarren parte-hartzea bideratzeko deialdi publikoa eskatzen duten txostenen tramitazioa argitaratuko da, esate baterako, aurrekontu parte-hartzaileena.



## UDALA ON LINE

Arabako Foru-Diputazioak diseinatutako web gune baten bidez, Zigoitiko udal web berriak HERRITARREN ATARIA eskaintzen du; hau da, herritarrek prozedura batzuk online tramitatu ahal izateko aukera (adibidez, errolda ziurtagiri bat eskatzeko). Horretarako beharrezkoa da ziurtagiri digitala (NAN digital, Izenpe, ONA Txartela...). Pixkanaka elektronikoki bidera daitezkeen prozeduren kopurua handitzen joango da.

Web berriztatzearekin erabilgarri eta ulergarria den informazioa luzatu nahi diegu herritarrei. Gaur gaurkoz eduki asko falta dira oraindik, baina egunero osatzen ari gara. Bestalde, web-orrialdeko antolaketa, kudeaketa eta administrazioa erabat moldagarria da. Sortzen ari diren beharren arabera egokituko dugu. Zentzu horretan, iradokizunetara zeharo irekita gaude. Horretarako daukagu **zigoitia@zigoitia.org** helbidea.

## Kotxea partekatzeko zerbitzua, martxan!



Sektore guztien artean, garraio sektorea da klima aldaketa sortzen duen B.E.G (Berotegi Efektuko Gasen) isurketen igorle nagusia. Beraz, kontziente izan behar dugu hau bezalako egitasmoek duten garrantziak, eta guztion arduradela bizi garen planeta zaindu eta errespetatzea.

Zigoitiko udalak, mugikortasun jasangarriko eredu bat bultzatu nahian, kotxea partekatzeko zerbitzu berria jarri du martxan, estreinatu berri den udal webgunearen bidez. Zerbitzu honen bidez, erabiltzailea oso modu sinple batean erregistratu daiteke aplikazio informatiko honetan eta une horretatik aurrera kotxea partekatzeko prest dauden pertsonen zerrenda batean sartuko da. Bertan, egiten duen ibilbidearen ezaugarriak bete beharko ditu (ordutegia, helmuga, maiztasuna...) eta datu hauekin iragarki bat sortuko da.

Interesatuta dauden pertsonak zerrendan agertuko den iragarkian sakatuz, zuzenean harremanetan jartzeko leiho bat zabalduko da, posta elektronikoaren bidez bi pertsona hauek kontaktuan ipiniz.



### Tokiko Agenda 21

Era berean, Tokiko Agenda 21eko egitasmoak bere Ekintza Planean zehazten duen helburuetako bat betetzen da, Zigoitiko herritarrei bere eguneroko desplazamenduetarako alternatiba jasangarri bat eskainiz. Mugikortasuna, gure udalerria jasangarritasunerantz abiatzeko hobetu beharreko arloa da, eta zerbitzu berri honekin udaletik identifikatutako problema honi (normalean, kotxe bakoitzean bidaiari bakarra doa) erantzuna eman nahi zaio.

Hala ere, arlo honetan oraindik ere asko hobetu behar dela uste dute udal arduradun eta teknikoei. Beraz, lehenengo urrats bat besterik ez da honako ekimen hau, eta ahal den neurrian ildo honetan lan egiten jarraitzeko asmoa du Zigoitiko udalak. Ondorengo egin beharra zerbitzu hau herritarren artean ezagutzera ematea izango da, zerbitzua eraginkorra eta erabilgarria izan dadin. Izan ere, azken finean, zenbat eta jende gehiago erregistratu, orduan eta handiagoak izango baitira kotxe-kidea topatzeko aukerak.

Honela, ingurumenean sortzen dugun inpaktua murrizteaz gain, dirua aurrezteko aukera izango dugu eta, bide batez, gure inguruan bizi diren pertsonak ezagutzeko aukera paregabea izango dugu. Zerbitzu honek dakartzan onurak ugariak eta inportanteak dira, beraz... animatu eta egin ezazu proba, **CLIK BATEAN...PARTEKATU!**

## Narrasti eta anfibioen inbentarioa

Ba al dakizu zer den Herpetologia? Narrasti eta anfibioak ikasten dituen Zoologiako adarra da, hain zuzen. Agian ez dirudi, hain txikiak eta edertasun gutxikoak izanda, baina animalia hauen ikerketak garrantzi handia dauka gure ingurumenean. Adibidez, ekosistemen aldaketen adierazle oso onak dira; kutsadura, batez ere, oso azkar igartzen dute. Izan ere, anfibioek eta narrastiek sortutako pozoik eta toxina batzuk medikuntzan erabiltzen dira. Suge batzuren pozoia ikertzen da, adibidez, koagulazioaren aurkako botika bila.

Hori guztia kontuan hartuta, Aranzadi zientzia elkarteak Zigoitiko anfibio eta narrastien identifikatzeko landa-lana egiten ari da. Ikerketa honen helburua anfibio eta narrasti espezieen populazioak babestea da eta, aldi berean, biodibertsitatearekin lotutako ezagutza sortu eta zabaltzea. Zigoitian, beste hainbat eta hainbat lekutan bezala, askotan ez ditugu ezagutzen gure inguruan bizi diren izaki bizidunen kopuru minimo bat baino. Batzuetan ezagutza faltagatik, eta beste hainbatetan gizartearen dinamika suntsitzaileagatik, landare eta animalia espezieen biziraupena arriskuan ipintzen dugu. Egoera honi aurre egiteko eta Euskal Herrian dugun bionaniztasuna ezagutu eta babesteko neurriak hartu ahal izateko, lehenengo urratsa espezieak identifikatzea da. Gainera, animalia hauek gure ondare naturalaren zati bat osatzen dute eta, biodibertsitatearen aldetik, gure herria aberatsago eta erakargarriago bilakatzen dute.

Ikerketa hauen emaitzak aurkezteko hainbat ekintza antolatu ditu Zigoitiko udalak. Adibidez, azaroaren 14an Aranzadi Elkarteko ikertzaileek emandako hitzaldia. 'Culebras y víboras de Zigoitia: víctimas de su mala fama' izenburupean, gure gizartearen hain



Argazkia: C. Cabido.

zabalduta dauden *mitoak* bazterteaz gain, bizirik dauden suge ale batzuk ikusteko parada izan zen. Galdu bazenuen ez kezkatu. Aurrerantzean gai honekin lotutako ekintza desberdinak antolatuko dira: beste hitzaldi bat, animaliak tokian bertan ikusteko irteerak, argazki erakusketa... Jakinmina baduzu gomendatzen dizugu udal web orrialdeko agendan begiratzea, bertan aurkituko dituzue xehetasun guztiak.

### Zigoitiko herpetofauna

Zigoitian eta inguruetan 11 anfibio eta 15 narrasti mota izan daitezkeela adierazten digute bai datu zaharrek, bai habitatak berak dituen potentzialak. Lehenengoan artean nabarmenenak Euskadin arraroak diren espezie babestuak ditugu, hala nola iberiar baso-igela, baso-igel jauzkaria eta gailurretako uhandrea bezalakoak. Narrastien artean, berriz, aurki ditzakegu espezie mediterranearrak (gardatxoak edo eskinko hiruhatzak), penintsulako bertako beste batzuekin (schreiber muskerra edo kantauriar sugegorria), eta Europako kontinentekoekin batera (zirauna, sugandila bizierrulea edota iparraldeko suge leuna). 2013an egindako laginketek honezkero berretsi dute badirela 7 anfibio mota ezberdin eta beste hainbeste narrasti. Azken hauen artean 2 suge nabarmentzen dira: suge gorbataduna eta iparraldeko suge leuna. Gainera erreketan espezie exotiko batzuen sartzea behatu da, Floridako dortoka, esate baterako.

## Zigoitiko Liburutegiko II Jardunaldiak

Testua eta argazkiak: **J. Arbulu**

Erik Satiek zioenez, badira erosketetako karrotxoak edota tanke bat Thomas Bernharden liburu bat esku artean dutela eraman dezaketan 70 urtetik gorako emakumeak. Eta badira, halaber, gazteak ere, literaturak data eta gorpu monarkikoz gainezka egiten duten koadro sinoptiko zornetuz betetako irakasgaia izateari uneren batean uzten diolarik, euren auzo-eksuarki kakatsuetako- kaleetara tirantedun kamisetaz jantzita irteten dutenak, poesiak salbatzen duen guztia salbatzera (hots, gutxi edo ia ezer baina daukaten GUZTIA).

Literaturak arropa erantzten du orduan eta lumpeneko mutikoari gustatu egiten zaio ikusten duena edo, hobeto, orduan lumpenak ezin dio antzizarri behakorik gainerik kendu. Izan ere, antzizarra eta hotza baita literatura, tirantendun kamisetan. Aldian behin, dena

**Rubén A. Ariasek** idazketa tailer batekin jo zien su azaroaren 2, 9 eta 16ko larunbat arratsaldeei. Literalki eta literarioki, ohikoaz bestelako eran egin zen talde bat Zentroaren jabe. Markatuta geratu zen euren begietan, euren masail eta eskuetako orban urdinkaretan. Hasten da talde bat idazketa-lanetan eta guztia jartzen du hankaz gora. Tailerrak, *Belarraren luzera* izenez, tresneria eman eta su hartu zuen belarrak.

den, haren aldamenean ezer txarrik ez zaiela gertatuko sentitzen dutelako ekaitz-egunetan burusipean Antonio Machadoren liburu bat gordeta lo egiten duten gizonak agertzen dira. Bizitzari DENA ala EZER EZ esaten dioten gazte hauek, besarka daitekeena baina gehiago ere badela erakus dakiela nahi duten gazte hauek, lepoa egin eta lepo eginez eder diren gizon-emakume hauek, badira, izan: existitu egiten dira; eta beharrezko ditugu. Ze, asko ez baldin badira ere, oraindik amore eman ez duten gutxi horietakoa baitira, izan. Eta ez ditu izutzen derrotak, biziki gazteak izanagatik, haren aldamenean denbora luzea dute-eta emana. Eman beharko duten guztia eta gehiago. Haientzat dira, batez ere, Zigoitiko Liburutegiko II Jardunaldiak: Alde paretik, ikusi nahi badituzue.



Bitartean, azaroaren 7an, **Miguel García de Cortázarrek** bisita egin zion gure liburutegiari, hala zineman nola literaturan oraindik ere lortatza jarrai lekiokkeen irudi antropologikoaz jarduteko: *Atzekoz aurrerako gizonei* buruz. Gure alderik irrigarriena (gauza kuriozkoa, boterearen alderik irrigarrienarekin bat etorri ohi dena) islatzeko ahalmena duten ispiluak balira bezala funtzionatzen duten gizonak. Gizarte mota guztietan aurkituko ditugu Atzekoz aurrerako gizonak, Ertamerikako Hopi indioen artean nahiz erdi Aroko gortean. Barrea izan ohi da euren erreminta nagusia.



Uste dut esan dezakegula gazte batek bere idazketako kartak jartzen dituela jokoan edo, nahiago baduzue, geure irakurketak inoiz izan gintezkeen autore horri bidaltzen dizkiogun gutunak direla. **Bruno Montané** irakurle nerabea eta poeta nerabea izan zen. Hala da orain ere, irakurlea eta poeta. Nola ezkontzen dira bi gauzok? Zer erlazio gordetzen du batak bestearekin? Zertan da nagusi hamabost urteko poeta, edo zer nagusitzen da hamabost urteko poetan? Non dira bere irakurketen erroak eta zein galderari bilatzen zitzaion erantzuna? Zein da ausardiak eta eskuzabaltasunak formultzen dituen galderak? Irakurketaren bidez norbere burua jateko ausardia -esaten du Brunok- irakurritako guztiaren eskuzabaltasun ezkutu nahiz agerikoa. Azaroaren 21ean izango da, 19:30etan.



Argazkia: **Zaldi Ero.**



**Iban Zalduarentzat** urte ona izan da joandakoa: *Azken Garaipena* komikiak 'Euskarazko haur eta gazte literaturako Euskadi Saria' irabazi zuen, eta inprentako labean orain arteko bere azken ipuin liburua nola sartu zuten ikusi ahal izan zuen: *Idazten ari dela idazten duen idazlea* (Elkar, 2012). Liburu hau eta berak proposatzen dizkigun galderak aitzakia ezin hobea izango dira narratzaile aitzakia eta eskalpelo baina zorrotzagoa Zigoitiko liburutegira ekartzeko. Abenduaren 3an izango da, 19:30etan eta, bidenabar, bere azken sariagatik zorionak emateko aprobetxatuko dugu: *Ese idioma raro y poderoso* liburuarekin irabazitako gaztelaniaren alorreko 'Euskadi Saiakera Saria'.

**Txabi Arnalek** jakinaren gainean kontatzen ditu ipuinak eta ez hori bakarrik, kontu handiz kontatzen ditu. *Badaude beste ipuin batzuk*, gogoraraziko digu abenduaren 19an, eta aprobetxatuko du gutxitan kontatzen diren gauza batzuk kontatzeko, ezkututzen diren eta dituzten ipuinak. Tabuari uzten ez zaion espazioa.

Zera zioen Erik Satiek: "Jakizuela, adiskide maitekok, arte bakoitzaren espiritua dela artistari borrokaren bortxa jasateko beharrezko den adorea ematen diona. Ze, Artean, dena dago borrokan"; eta ez zitzaion arrazoirik falta.



# MAIRU ABESBATZA, bizitza kanta- kantari

## Nortzuk dira?

*Mairu Abesbatza* 2008an sortu zen, Jesús Miguel Etayo zuzendaritzapean eta Aliona Makeeva piano-jotzailearen laguntzarekin. Gaur egun 35 ahots mistok osatzen dute taldea: Zigoitiko bizilagunak eta udalerriarekin erlazioatutako pertsonak dira denak, 24 eta 65 urte bitarteko adinekoak eta musika korralaren zale amorratuak. Musika Eskolaren bidez Zigoitiako musika irakaskuntza koordinatu eta antolatzen duen *Dominizubi Musika Elkartean* dago integraturik *Mairu*.

## Nola antolatzen dira?

Astean behin entseatuz hasi ziren, ostiralero, baina erritmoa motz samarra egin zitzaizen. Hitzemandako konpromiso zirela medio, beste egun bat gehiagoz entseatzeko beharra ikusi zuten, eta hala hasi ziren astezkenetan ere. Saio gehigarria ahots- teknikan sakontzen da eta horri esker taldeak kalitatean eta eszenaratzean irabazi du.

## Errepertorioa

Era askotakoa da. Musika erlijiosoa nahiz Latinoamerika eta Euskadiko folklorea barne hartzen ditu. Eta Jesús Guridi, Los Panchos, Joseba Olaizola edo Luis Aramburu bezalako egileak. Batzuetan, abestiak gitarraz, pianoz, akordeoiz, panderoaz eta danbolinaz laguntzen dira. Pieza batzuen moldaketak Jesús Etayo zuzendariak egin ditu.

## Hurrengo kontzertuak

Urteko azken bi hilabete hauetan Okondoko *Itzalde* abesbatzarekin topaketa izango da Etxabarri-Ibiñan. Eta baita Eguberriko kontzertua eta Círculo Vitoriano-koa ere (biak Gasteizen). Gainera, Santo Domingo de la Calzada-ko XXIII. Gabon-Kanta Lehiaketan parte hartuko dute.

## Info gehiagorako:

[www.dominizubi.com/mairu-abesbatza](http://www.dominizubi.com/mairu-abesbatza)



## Historia pixka bat

*Mairu Abesbatzak* 2008KO uztailaren 26an eskaini zuen bere lehenengo emanaldia, Zigoitiko Eguzki Jaian. Orduetik aurrera, hitzordu hori taldeko urteko egutegian finko dago. Beste *derrigorrezko* hitzordu bat Zigoitia Euskaraz-ekoa da, irailan. Izan ere, Zigoitiko herri gehienetan eta Arabako gainontzeko herri askotan abestu dute; jaialdietan eta kontzentrazioetan hartu dute parte; eta Gasteizko Dultzinea, Kantabriako Kamargoko haraneko Mateo Escagedo Salmón eta Lleidako Schola Cantorum abesbatzekin trukeak egin dituzte. Iazko uztailan San Petesburgo-ko (Errusia) *Renesans Koruaren* bisita jaso zuten. Eta azken abuztuan, hain zuzen, hiri horretara joan ziren bidaian, *Singing World Nazioarteko XI. Jaialdi* koralean parte hartzeko.

## San Petesburgoko Nazioarteko Jaialdia

Lehiaketatik kanpo 4 emanaldi eman zituzten: inauguraziokoan, San Pedro eta San Pablo Katedralean; gero, Errusiako Museo Etnografikoan eta Kaskad Kultur Zentroan; eta jaialdiaren itxierakoan, San Petersburgoko Kapela Akademikoan. "Baina beharbada kantari askoren gogoan zirrargarriena Hermitage museoan Elurra mara mara kantatu genueneko da. Bat-batean hasi ginen abesten, museo aldameneko gela batean bertako laukote bat abesti bera baina errasieraz kantatzen entzun genuenean" kontatu digute taldekoek.

## Puntako bertsolaritza

# Euskal Herriko Txapelketaren bisita, Zigoititik bertan



Gure bertsolari-harrobia: Murgiko bertso eskolako irakasle eta ikasleak.

**Azaroaren 17an jokatu da Murgian, Palatu kiroldegian, 2013ko Euskal Herriko txapelketako 4. finalurrekoa. Aitor Mendiluze, Sustrai Colina eta Beñat Gaztelumendi ariko dira, besteak beste, kantuan, igande arratsaldean, 17:30etik aurrera.**

Eskualde osoa astinduko duen ekitaldia izango da finalurrekoa. Izan ere, lau urtean behin bakarrik egiten da txapelketa nagusia, Araban bi saio soilik izan ditugu... Beraz, puntako bertsolaritzaz gertu-gertuan gozatzeko aukera paregabea.

Murgiko bertso eskolako ikasleek, seguru, ez dute aukera hori galduko. Zuiako, Urkabustaizko eta Zigoitiko gaztetxoak biltzen dira bertan, eta bertsolaritzarekin duten harremana gero eta estuagoa dela esan dezakegu: ederto pasatzen dute kantuan, jolasak egiten, ahozko euskarari distira ateratzen...

Hala ere, finalurrekoa ekitaldi masiboa da (1.100 lagunentzako lekua dago pilotalekuan), eta denontzako egongo da lekua. Bertsolaritza urrun samar sentitzen dutenek ere izango dute nola gozatu. Bertso saio arrunt baten antzerakoa izango da; alde bakarra (eta ez alde

txikia), bertsolarien jarduna puntuatu egingo dela. Horretarako, hainbat epaile egongo dira kantatutako bertsoak banaka-banaka 0tik 10era epaitzen. Gauza ugari baloratzen dira bertsoak merezi duen puntuazioa erabakitzeko: jarritako gaiarekin egindako lotura, ideien originaltasuna, azkartasuna, errimen aberastasuna, publikoarekin lortutako komunikazioa, hizkuntzaren zuzentasuna...

Hala ere, horrek ez du esan nahi entzule 'arruntak' horretan jarri behar duenik atentzioa. Barre egiteko aukera egongo da, emozionatzekoa, serio jartzekoa eta gai batzuetaz hausnartzekoa ere bai. Hainbat iritzi, ikuspuntu, joera... ikusiko ditugu saio osoan zehar, eta horretarako, saioa bertatik bertara bizitzea onena.

Amaieran, lehenengo sailkatzen den bertsolaria pasako da hurrengo fasera zuzenean. Gainontzekoek itxaron egin beharko dute, puntuazioaren arabera lortuko baitute pasatzea...

Hala nahi duenak, sarrerak salgai ditu [www.bertsosarrerak.eu](http://www.bertsosarrerak.eu) webgunean (13 € sarrera arrunta, 10 € bertsozale elkarteko bazkideen sarrera eta 5 € 16 urtetik beherakoena), edo bestela loar tabernan.

Olentzerori lagunduz: jostailuak aukeratzeko gida praktikoa

# PAAAAAALU BAT!

Argazkiak: SXC.

Gabonak badatoz, eta gurasoak hasiak dira pentsatzen zer nolako opariak ekarriko dituzten aurten Olentzerok edota Errege Magoek. Zeintzuk izan daiteke egokienak? Zeintzuk ez? Zer kontuan hartu behar dugu gure seme-alabek Olentzerorako gutuna idazten laguntzerakoan? Galdera horiei erantzuna emateko eta zentzuz jokatu ahal izateko Carolina Fernándezekin, Zigoitiko Zentro Soziokulturalean lan egiten duen psikologoarekin, jarri gara harremanetan. Hona hemen berak proposatutako dekalogo -jostailuek bete behar dituzten ezaugarriekin- eta, adinaren arabera, aukeratzeko gida praktikoa.



## Nolakoak izan behar dira jostailuak?

1. Lehenik eta behin, jostailuak **seguruak** izan behar dira.
2. **Errazak**, funtzionamendu samurrekoak eta ulertzeko xumeak.
3. **Umeentzako atseginak** (ez bakarrik gurasoentzako).
4. **Iraunkorrak**, apurtzeko beldurrik gabe maneiatu ahal izateko.
5. Umeen **adinari** eta **ezaugarri ebolutiboegi egokitutakoak**.
6. **Suspergarriak**, irudimena eta motibazioa bultzatzeko.
7. **Elkarrekintza**, erabilera berriak sustatzen dituztenak.
8. Garapen afektiboa indartu behar dute: **egoera emozionalak adierazi, birsortu eta transformatzeko gai direnak**.
9. **Sozializazio ereduak birsortzeko aukera** eman behar dute: bizi edo imajinatu diren egoerak euren erara islatzeko.
10. **Mugimenduaren, zentzumenen eta ezagupenaren garapena** indartu behar dute.



## Adinaren araberako jostailuak\_ kontuan hartzeko gakoak:

### 0 eta 1 urte bitarteko haurtxoentzat:

- **Zentzuak:** koloredunak, ehundurekin eta soinuekin.
- **Mugimendua:** lau oinean ibiltzeko lagungarriak, heltzeko errazak.
- **Afektibitatea:** peluxeak, panpinak...



### 1 eta 2 urte bitarteko umeentzat:

- **Espazio miaketa:** taka-takak, 'korre-pasiloak'...
- **Kausa-ondorio erlazioa:** dorreak, pilotak...
- **Imitazioa:** animaliak, panpinak, autoak, telefonoak...



### 2 eta 6 urte bitarteko umeentzat:

- **Motrizitatea:** trizikloak, baloiak, sokak, kuboak...
- **Motrizitate fina:** pilatzekoak, eraikitzeak...
- **Sozializazioa:** txotxongiloak, panpinak, sukaldetxoak, kit-ak (medikuak, zurginak)...



### 6 eta 10 urte bitarteko umeentzat:

- **Motrizitatea:** irristailuak, bizikleta...
- **Estrategia-trebetasunak:** mahai-jokoak (partxisa, damak, konekta 4, kartak)...
- **Eraikinak:** adreiluak, ziritxoak, hiru dimentsiotakoak...
- **Ingurumen ikerketa eta esperimendua.**
- **Birsortze fantastikoa:** heroiak, espioiak, telebistako edo komiki pertsonajeak...



## Eta bideo-jokoa eskatzen badute?

Carolina Fernández psikologoaren iritziz, "normalena da horrelako jolasak eskatzea, denek izango baitituzte haien inguruan: eskolan, lagunek, senitartekoek Ezberdina ez izateko, normalean gurasoek horrelako makinatxoak Olentzerori eskatzen dizkiote, eta ondo dago. Baina kontrolpean izan beharko genuke zer nolako jolasak izaten dituzten makinatxo horiek. Badaude oso jolas interesgarriak, politak eta erakargarriak haurrentzat, zeintzuk trebetasun kognitibo pilo bat lantzen duten! Beste aldetik, nik uste dut mugatu behar dena dela **zenbat denbora** egoten diren makinatxo horiekin, **noiz eta nola**. Errefortzu bezala erabiltzen baditugu, adibidez, etxeko lanak egin ondoren, etxean daudenean eta bere lagunak inguruan ez daudenean, primeran legoke. Kontua da parkean daudenean, lagunekin eta makinarekin jolasten. Horrela ez dute motrizitatea garatuko, ez dira sozializatuko, ezta besteekin harremanetan jarriko... Momentu horietan ez du ezertarako balioko. Justu alderantziz. Bideo-jokoekin gainontzeko gauza guztietan bezala gertatzen da: ez dira txarrak, baina erabiltzen ikasi behar dugu. Bukatzeko, pentsatu behar duguna da: makinatxoa ez da umea trankil egoteko aparailua, ez da gurasoek haien gauzak egiten dituzten bitartean umea entretenitzeko".



## Badatoz eguberriak!

Bertan ditugu Eguberriak konturatzerako! Gezurra badirudi ere, hilabete baino ez da falta. Udaleko Kultura Sailean ondo asko dakite hau, eta jo eta ke dihardute, aurten ere, jaietarako programazio berezia-berezia eskaintzeko asmoz. Abenduaren 18tik urtarrilaren 3ra arte, 20 jarduera baino gehiago prestatuko dituzte adin eta gogo guztietarako. Urtero bezala, etxez etxe banatuko da Eguberriak kultura programazioa, xehetasun guztiekin, eta udaleko webgune berrian ere argitaratuko da. Baina aurrerapen moduan, hara zein izango ditugun plater nagusi: musika emanaldiak, Musika Eskolaren eta *Mairu abesbatzaren* eskutik, Mari Dominginen bisita, Olentzeroren festa eguneko krossa eta jaiá, Carolina Noriegak emandako bakarriketa, bisitaldia Zigoitiko jaiotzetara eta Bilboko PINera, eta Txapelparty izeneko haur, gazte eta nagusiei zuzendutako proba-lehiaketa.

Udalaren partetik, guzti-guztioi eta bihotz-bihotzez, Eguberri on!



### Autobusen ordutegiak

ETXAGUEN → VITORIA-GASTEIZ		10A LINEA															
		7:00 7:02 7:04 * * * *	7:08 7:10 * 7:13 7:18 * 7:50	10:00 10:02 10:04 * * * *	10:08 10:10 * 10:13 10:18 10:25 10:50	15:35 15:37 15:39 * * * *	15:43 15:45 * 15:48 15:53 16:00 16:25	20:50 20:52 20:54 * * * *	20:58 21:00 * 21:03 21:08 21:15 21:40								
*Hurbiltzeko zerbitzua, aldez aurretik abisatua Letra beltzez dauden ordutegietan, ikasturtean zehar bakarrik ematen da zerbitzua		*Servicio de acercamiento con aviso previo Los horarios en negrita sólo se realizan durante curso escolar															

VITORIA-GASTEIZ → ETXAGUEN		10A LINEA															
		9:00 14:45 20:00	9:25 15:10 20:25	9:32 15:17 20:32	* * *	* * *	* * *	9:42 15:27 20:42	* * *	* * *	* * *	9:46 15:31 20:46	9:48 15:33 20:48	9:50 15:35 20:50	* * *	* * *	
*Hurbiltzeko zerbitzua, aldez aurretik abisatua		*Servicio de acercamiento con aviso previo															